

OPE
2007



2007ko
LEP

KODEA Lanpostua/k:

B-6023

GIZARTE LANGILEA, E.T.

1. ariketa. 2. proba

TEST GALDERAK

Galderak: 75.

Denbora, gehienez: 90 min.

EREDUA:

C

- Ez zabaldu esan arte.
- Proba bukatzean inprimaki hau zeurekin eraman dezakezu.
- Gogoan izan:
 - o Asmatuak: 1,00
 - o Hutsegiteak: - 0,33
 - o Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: - 0,00
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan. Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez ahaztu orri horia eta argibide-orria zeurekin eramatea.

1.- Zer da Gizarte Ongizatea?

- A. Premiak konpontzeko esku-hartze modu tekniko eta antolatua.
- B. Gizarte ekintzaren azken helmuga, zeinek herriek bizi-baldintzei eta elkarbizitzari dagokienez dituzten jomuga sozialen multzoari erantzuten baitio.
- C. Premiak konpontzeko berariazko esku-hartzea da.
- D. Pobrean aldeko laguntza-eskubidea da.

2.- Hauek dira bazterketaren arrazoiak:

- A. Familiarrak, kulturalak, sozialak, laboralak eta politikoak.
- B. Pertsonalak eta inguruari dagozkionak.
- C. Ekonomikoak, psikosozialak eta ekologikoak.
- D. Industrializazioa, sistema ekonomikoa, pobrezia eta gizarte desberdintasuna.

EEEko Ekonomi eta Gizarte Batzordeak pobrezia irizpen bat onetsi zuen, eta pobrezia handia honen ondorio dela aitortu:

- A. Ostaturik eza, finantza baliabiderik eza langabezia aldi luzearen ondorioz eta babes sozial eta sanitariorik eza.
- B. Pobrearen erantzukizuna, injustizia soziala eta eskubide sozialak ez ezagutzea.
- C. Pobrearen axolagabekeria, etsipena eta inguruabarrak.
- D. Elbarria, baztertua, zaharra edo etorkina izatea.

4.- Hauxe da gizarte bazterketa:

- A. Baliabide jakin batzuetara irispiderik ez izatea eta bizitza politiko eta sozialean ez parte hartzea.
- B. Gizarte jakin batean bizitza maila muga batzuen, diru-sarrera, kontsumo, ongizate, aisialdi... maila edo tipo ertain batetik behera dagoen egoera.
- C. Batzuen gabezia, besteen oparotasunaren ondorioz.
- D. Gizabanakoa bere ingurura ez egokitzea.

5.- Hauek dira gizarte bazterketa eragiten duten faktoreak:

- A. Gaixotasun kronikoa, istripuak eta portaera tipikoa desbideratzea.
- B. Pertsonalak edo endogenoak eta inguruari dagozkionak edo exogenoak.
- C. Portaera soziala, antisoziala eta disoziala.
- D. Familiarrak, kulturalak, laboralak eta politikoak.

6.- Gizarte zerbitzuen zeregin orokorrak dira:

- A. Laguntza ekonomikoak ematea eta arazo eta premiak konpontzea.
- B. Informazioa, orientabidea eta aholkularitza; etxez etxeko laguntza; lankidetzeta eta animazio komunitarioa; harrera zerbitzua; laguntza ekonomikoen kudeaketa.
- C. Animazio komunitarioa eta boluntarioritza sustatzea.
- D. Lehen laguntza eta premiak atzematea, eta kudeaketa eta zerbitzu espezializatueta bideratzea.

7.- Gizarte Segurantzako kotizatu ez dutenen prestazioak hemen daude finkatuta:

- A. Apirilaren 7ko 13/1982 Legea
- B. Uztailaren 6ko 5/1989 Legea
- C. 1990eko apirilaren 9ko Agindua
- D. Abenduaren 20ko 26/1990 Legea

8.- Integrazio sozio-laboralerako zentroak honetan sartzen dira:

- A. Gizarte lankidetzarako programa.
- B. Gizarte larrialdietarako programa.
- C. Bat ere ez.
- D. Gizarte prebentziorako eta gizarteratzeko esku-hartze programa.

9.- Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren laguntza sareak garatu beharreko helburuak hauek dira:

- A. Herritarrei informazioa hurbiltzea, etxez etxeko laguntza bermatzea, tratamendu psikosozialak, gizarte zerbitzuen zentroen, harrera zentroen, zainpeko etxebizitzan, egoitzen eta aterpeen sarea garatzea.
- B. Haurrei, zaharrei eta ezinduei janaria ematea, arropa garbitzea eta zaintzea.
- C. Gizarte zerbitzuen zentroak eta berariazko zentroak sortzea, baita lanbide arteko lantaldeak eta gizarte lanerako unitateak ere.
- D. Elkartasuna sustatzea, herritarrei parte harraraztea, gizarte zerbitzuen sistema publiko finantzatu, kudeatu eta kontrolatzea, horiek deszentralizatzea eta administrazio maila desberdinen eskumenak koordinatzea.

10.- Hauxe da oinarritzko taldearen zereginetako bat:

- A. Zonaldeko premiak atzematea.
- B. Informazioa, aholkularitza eta orientabidea.
- C. Gizarte zerbitzu espezializatueta bideratzea.
- D. Aurreko hirurak zuzenak dira.

11.- Familia, auzoa, elkarteak... boluntariozaren hiru modalitate dira, programa honen baita:

- A. Lankidetzeta
- B. Gizarte ekimena
- C. Gizarte larrialdia
- D. Irisgarritasuna

12.- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak honetaz dihardu:

- A. Gizarte ongizatea
- B. Politika soziala
- C. Gizarte Segurantzza
- D. Premia eta baliabideen arteko oreka

13.- Prebentzioa gizarte ongizaterako politikaren irizpideetako bat da:

- A. Ez
- B. Bai
- C. Ez, globalizazioa da
- D. Ez, laguntza, prebentzioa eta sustapena da.

14.- Gizon eta emakumeen arteko desberdintasun egoera honen ondorio da:

- A. Ugaltze portaeraren bilakaera.
- B. Sexuen eta belaunaldien arteko erlazioa, eta, beraz, familia.
- C. Hezkuntza, kultura eta gizarte ezberdintasunak
- D. Aldaketa demografikoak eta krisi ekonomikoa

15.- Zein elementuk definitzen dute egungo ongizatearen estatua?

- A. Baliabiderik ez duten taldeen gizarte babesa eta populazioa aktiboa
- B. Estaldura unibertsala eta populazioa aktiboa
- C. Krisi ekonomikoa eta kotizatu ez dutenen prestazioak
- D. Gastu sozial handia eta ekonomiaren sektore publikoa

16.- Etxez etxeko laguntza zerbitzua programa honetan sartzen da:

- A. Larrialdia
- B. Elkarbizitza
- C. Gizarte lankidetzeta
- D. Informazioa

17.- Ekintza hauetako zeinetara zuzenduta dago esku-hartze prebentiboa:

- A. Autonomia pertsonala faboratzea
- B. Prozesu marginalak saihestea
- C. Arrazoiak aztertzea
- D. Ondorio negatiboak gutxitzea

18.- Behar diren kasuak diagnostikatu eta bideratzea, zein programaren zeregin da?

- A. Gizarte larrialdia
- B. Gizarte lankidetzeta
- C. Informazioa, aholkularitza eta orientabidea
- D. Gizarte prebentziorako eta gizarteratzeko esku-hartzea

19.- Hirugarren adinekoen alorreko zein jarduera programari dagokio boluntariotza?

- A. Lankidetzeta
- B. Irisgarritasuna
- C. Elkarbizitza sustatzea
- D. Etxez Etxeko Laguntza

20.- Hauxe da ebaluazioaren helburua:

- A. Egokitasun eta eraginkortasun maila neurtzea
- B. Baliotasun, objektibotasun, malgutasun, praktikotasun eta egokitasun maila adieraztea
- C. Ekintza aldakuntzarik egin behar den –eta zein– erabakitze beharrezko diren irizpideak ematea
- D. Kostu txikiena izango duen prozedura erabiltzea

21.- Hauek dira bazterketa motak:

- A. Analfabetismoa, atzerritartasuna, arrazagutxiengoak eta instituzionalizazioa
- B. Endogenoa eta exogenoa
- C. Gaixotasun edo murrizketagatik, isolamenduagatik, bortizkeriagatik eta autobazterketagatik
- D. Eskekotasuna, langabezia, prostituzioa eta delinkuentzia

22.- Hauxe da plangintza:

- A. Esku-hartze nukleoak zehaztea
- B. Profesionalak erabiltzailearen arazo-egoera baloratzea
- C. Ekintza teknika bat, esku-hartze deliberatu baten bitartez emaitza jakin bat lortzera bideratua
- D. Plangintzaren teknika propioak erabiltzea

23.- Gizarte langile komunitarioaren zereginak hauek dira:

- A. Egokitzapen soziala; baliabide eta premiak orekatzea; herritarren parte hartzea lortzea garapen prozesuan
- B. Antolakuntza komunitarioa; garapen komunitarioa; animazio komunitarioa
- C. Herritarren arteko gatazkak konpontzen laguntzea; taldeen arteko harremanak ezartzea; horietako kideei antolatzen laguntzea
- D. Zuzentzailea; prebentiboa; informatzekoa; orientabidea ematekoa; gaitzea, sustatzea eta baliabideak eta gizarte tratamendua hornitzea

24.- Hauxe da prebentzioa:

- A. Jendeari premiak eta mugak ez ezik, lehenetsiak eta itxaropenak ere formulatzen laguntzea
- B. Gizarte arazoetan esku hartzea, arazoien eraginez eta ez ondorioetan bakarrik
- C. Legeei eta gizartearen baliabideei buruzko orientabidea eta aholkularitza, gizarte arazoetan esku hartzeko
- D. Arazo-arrazoiak aztertu eta ikertzea, diziplinen arteko taldeak eratuz

25.- Hauek dira gizarte lanaren zereginak:

- A. Laguntza ematea, ikerketa, plangintza, prebentzioa, zuzentzailea, prestakuntza, gizarte zerbitzuen administrazioa eta programazioa
- B. Makrosozialak eta mikrosozialak
- C. Banakoak, taldekoak, familiakoak eta komunitarioak
- D. Erantzukizuna harraraztea, arazoei erantzutea, autolaguntza, gizarte zerbitzuen kudeaketa, banako laguntzak eta etxez etxeko laguntza

26.- Hauek dira gizarte lanaren printzipio eragileak:

- A. Pertsonaren duintasuna ezagutzea, pertsonaren potentzialtasuna ezagutzea, pertsonak gizarte izaki gisa ezagutzea, berdintasun aukera baieztatzea
- B. Errealitatea ezagutzea, erantzukizun publikoa, arrazionaltasuna, dezentralizazioa, parte hartzea
- C. Kultur balioekiko begirunea, lanbide harreman positiboa, talde-lana, ikuspegi estrukturaletik jardutea eta partehartzea sortzea

- D. Globalizazioa, ongizatea orokortzea, prebentzioa, autonomia eta komunitatearen parte hartzea

27.- Hauxe da gizarte lana:

- A. Komunitatearen baliabideak eta administrazioak jarritako teknika eta tresnak
- B. Komunitate bateko banakoek arazoak zein mailatan sentitzen dituzten edo konpontzeko premia duten ezagutzeko beharra
- C. Esku hartze profesionala espazioa jakin batean, aldakuntza eragiteko, premiak aseztu eta baliabideak eskueran jarritz
- D. Dauden baliabideak mobilizatzea, arazoak konpontzeko, populazioaren beharren arabera egokitzeko eta ezagutzeko

28.- Hauxe da gizarte lanaren xedea:

- A. Banakoak, taldeak eta komunitateak
- B. Banakoak, taldeak edo komunitateak bizi duen arazo-egoera
- C. Premiak eta baliabideak
- D. Arazoa aztertu, diagnostikatu, planifikatu, zertu eta ebaluatzea

29.- Hauek dira metodoaren ezaugarriak:

- A. Errealitate sozial, dinamiko eta aldakorra, pertsonen desabantaila eta gizarte lanaren helburuak
- B. Helburua, kontzeptua, prozesua eta egitura
- C. Malgutasuna, orokortasuna, gizarteari eta gizakiari buruzko zientzien laguntza teorikoa, eraginkortasuna eta parte hartzea
- D. Aztertu, diagnostikatu, planifikatu, zertu eta ebaluatzea

30.- Hauxe da pronostikoa:

- A. Egoera aldatzeko aukerak eta hori hobetzeko behar diren bitartekoak azaltzen dituen estimazioa
- B. Diagnostikoaren formulazioa
- C. Arazo-egoerak eta eragiten dituzten faktoreak identifikatzea
- D. Arazoaren ondorioak banakoengan

31.- Hauek dira gizarte lan banakatuaren oinarriko printzipioak:

- A. Gizakiaren duintasuna, pertsonaren esentzia soziala eta giza hobegarrtasuna
- B. Gaitzea, integrazioa, baliabideetara irispidea izatea, potentziazioa, portaeraren aldakuntza eta baliabideak hornitzea
- C. Doitzea, egokitzea, sustatzea eta gatazkak gainditzea
- D. Indibidualizatzea, sentimenen adierazpen intentzioskoa, parte hartze emozional kontrolatua, onartzea, juiziorik gabeko jarrera, autodeterminazioa eta erreserba

32.- Hauxe izan liteke arazoa:

- A. Baliabide edo bitartekorik eza, ezjakintasuna edo ez ulertzea, energia emozional edo fisikoak agortuta egotea, emozio sakonak eta izaerazko egoerak
- B. Funtsezkoa, kausala, amilarazlea eta premiazkoa
- C. Objektiboa edo subjektiboa
- D. Jatorri sozial eta kulturalako krisi emozionala edo garapeneko dagoen egoera

33.- Zer da gizarte lanaren metodoa?

- A. Errealitateak ezagutu eta ulertzeko aukera ematen duen printzipio eta prozedura multzo antolatua bat, arazoei arrazionaltasunez eta eraginkortasunez aurre egiteko tresnak eskaintzen dituena
- B. Gizarte lanaren izaera tekniko eta zientifikoa
- C. Arazo sozial eta ekonomikoen egiturazko erlazioa da
- D. Ezagutza berria ahalbidetzen dituen ekintza da

34.- Zeren berdin da gauzatzea?

- E. Tratamendua
- F. Ez esku hartzea
- G. Jarduera profesionala
- H. Erabiltzailearen baliabideen mobilizazioa

35.- Hauxe da gizarte lan banakatua:

- A. Banako izateko eta ezberdintasun pertsonalak dituen gizaki gisa tratatua izateko eskubidea
- B. Erabiltzaileak bere sentimenak askatasunez adierazteko duen premia onartzea
- C. Laguntza prozesu bat, zeinen bitartez profesionalak, teknika eta prozeduren bitartez, banakoaren bitartekoak sustatzen baititu, hark egiatan gaindi ditzan dagoen arazo-egoerak sortutako gatazkak
- D. Adiskidetasunik gabeko harreman profesionala, erabiltzailearekin gertatzen dena, haren jarduera akuilatzeke

36.- Gizarte lan banakatuan hauxe da azterketa:

- A. Egiturazko aldagaien erabateko ezagutza
- B. Gizarte langilearen obserbazio pertsonalak
- C. Erabiltzailea dagoen puntutik abiarazteko printzipioa errespetatzea
- D. Erabiltzaileari eta haren egoera edo testuinguruari buruzko datuak biltzea

37.- Zer da diagnostikoa?

- A. Jarduera profesionalaren objektu den errealitatea ezagutzea

- B. Gizarte langileak erabiltzaileak aurkeztutako arazoaz duen iritzia
- C. Laguntza desberdindua emateko gaitasuna
- D. Eskaini daitekeen laguntza maila

38.- Adierazi zein baldintza eskatzen dituen gauzatzeak?

- A. Eustea eta zertzea
- B. Ulertzea, ezagutza sakona eta barruranzko ikuspegia
- C. Errealismoa, malgutasuna, eraginkortasuna, sorkuntza, parte hartzea eta ordezkatzeta
- D. Giza potentziala, gizarte baliabideak eta norberaren gaitasuna ezagutzea

39.- Ekintza Sozialaren ondorengo definizioetatik, zein da zuzena?

- A. Gizarte ekintzaren sistema orokorra, zeinek herriek bizi-baldintzei eta elkarbizitzari dagokienez dituzten jomuga sozialen multzoari erantzuten baitio
- B. Gizarte batek Gizarte Ongizatea lortzeko baliabide eta beharren arteko ahalik eta egokitzapenik handiena lortzeko dituen neurri eta prozeduren multzoa
- C. Eskekotasunaren arautzea
- D. Herritarren eskubide subjektiboak ezagutzen eta babesteen diren Estatu forma da

40.- Erabiltzailearen onarpenak hauxe dakar gizarte langilearen aldetik:

- A. Pertzepzioa, ulerkuntza eta aintzatespena
- B. Parte hartze emozional kontrolatua
- C. Sentipenen adierazpen intentsioduna
- D. Harremanaren sakontasuna areagotzea

41.- Tratamendu metodoak dira:

- A. Laguntza ematekoak eta sailkatzeakoak
- B. Elkarrizketa, behaketa eta komunikazio-prozesua
- C. Soziala, psikologikoa, mistoa eta psikiatrikoa
- D. Pertsonaren baliabideak eta ingurumenaren atzematea

42.- Diagnostikoaren mailak dira:

- A. Arazoaren identifikazioa, horren deskribapena eta hierarkizazioa
- B. Pronostikoa, laguntza mota eta une egokia
- C. Berehalako edo lehentasunezko ekintza, interpretazioa eta ebaluazioa
- D. Deskribatzailea, kausala eta ebaluaziozkoa

43.- Zein dira ebaluazioaren helburuak?

- A. Egokitasun eta eraginkortasun maila neurtzea; erabakiak hartzeko prozesua erraztea eta teoria-iturri egitea
- B. Baliozkotasuna, objetibotasuna, fidagarritasuna, praktikotasuna eta egokitasuna
- C. Barne eta kanpo koherentziari dagozkionak
- D. Helburuak lortzea, emaitzak alderatzeko aldakuntzak sartzea

44.- Gizarte langileak indibiduazoiari erantzuteko dituen baliabideak hauek dira:

- A. Tentsioa arindu, pertsona hobeto ulertu, arazoa ulertu eta harremanaren sakontasuna areagotu
- B. Xehetasunei arreta jartzea, diskrezioa elkarriketan, kontu egitea hitzorduak betetzeko, elkarriketaren prestakuntza, pertsonen lagunartzea eta malgutasuna
- C. Faboritismo eta aurre-juzkurik eza, giza portaeraren ezagutza, behatu eta entzuteko gaitasuna
- D. Erabiltzaileari bere arazoak ikusten laguntzea, baliabideei buruzko informazioa eta orientabidea, erabiltzailearen baliabide propioak akuilatzea eta harekiko harremanetarako giro egokia sortzea

45.- Zein da elkarriketaren definizio zuzena?

- A. Bi pertsona edo gehiagoren arteko zuzeneko solasaldia, aldez aurretik jarritako helburu batekin
- B. Pertsonari libreki hitz egiten uzten zaion solasaldia
- C. Gai baten inguruko solasaldia
- D. Datu egituratuak biltzen diren solasaldia

46.- Hauek eratzen dute gizarte zerbitzuen sistema publikoa:

- A. Giza baliabideak, teknikoak eta materialak
- B. Giza baliabideak, teknikoak, materialak eta finantza-baliabideak
- C. Baliabideak eta ekintzak
- D. Bat ere ez da zuzena

47.- Politika sozialeko honetaz arduratzen da:

- A. Gizarte zerbitzuen kudeaketa
- B. Gizarte esku-hartzearen arloa
- C. Babes sozialeko sistema desberdinak
- D. Bat ere ez da zuzena

48.- Adingabe eta familiekin esku hartzen delarik, gizarte zerbitzu komunitarioen jardueraren bitartez garatzen da:

- A. Programa komunitarioak
- B. Bereziki familiari eta haurrei zuzendutako programa komunitarioak
- C. Esku-hartze proiektu banakatuak
- D. Guztiak zuzenak dira

49.- Familia adingabea bere borondatez abandonatzeko berekin ekarriko du:

- A. Guraso-agintea galtzea
- B. Babeste dossier bat abiaraztea
- C. Zaintza galtzea
- D. Tutoretza galtzea

50.- “Haurrak tratatu txarretatik babesteko modurik hobereena guraso edo zaintzaileei babes eta zaintza zereginak beren gain hartzen edo berriro bereganatzen laguntzea da”, oinarriko printzipioa da adingabeekin esku-hartzean:

- A. Beti
- B. Inoiz ez
- C. Profesionalen irizpidearen arabera
- D. Bat ere ez da zuzena

51.- Gizarte bazterketarako arrisku egoeran dagoen familia baten integrazio prozesuan funtsezkoa da:

- A. Baliabide multzo bat mobilizatzea
- B. Laguntza ekonomikoa ematea
- C. Autonomia pertsonala areagotzea eta dependentzia gaintzea
- D. Guztiak zuzenak dira

52.- Krisialdian esku hartzeko eredu, gizarte langilearen zeregina honetara zuzendua joango da:

- A. Sintomak identifikatzea
- B. Faktore amilazleak identifikatzea
- C. Erabiltzailearen eta haren familiaren baliabideak identifikatzea
- D. Guztiak zuzenak dira

53.- Paradigma sistemikotik, familia baten behaketan, atentzio-gunea honetan zentratuko da:

- A. Famili multzoak, sistema gisa, dituen harremanetan bakarrik
- B. Famili multzoak dagoen suprasistemearekin dituen harremanetan
- C. Famili multzoaren baitako nahiz inguruarekiko interakzio eta intererlazioetan
- D. Famili multzoak sistema gisa duen egituran

54.- Familiekin egiten den gizarte lanaren printzipio hauetatik zein da gezurra?

- A. Familiaren historia sozial oso eta zehatza egin behar da
- B. Funtsezkoa da ulertzea familien arazoak era berean izan litezkeela famili multzo osoarenak edo bertako kideetako batenak bakarrik
- C. Gizarte langileak bere familia propioak zein modutan eragin dion onartu beharra dauka bere esperientziak esku hartzearen gai den familiarenetik bereizteko
- D. Guztiak dira gezur

55.- Honela definitzen da txosten soziala:

- A. Datuak erregistratzeko teknika bat
- B. Elkarrizketak erregistratzeko tresna bat
- C. Historia sozialari erantsitako agiri bat
- D. Datuak behatu eta sistematizatzeko teknika bat

56.- Hauxe da historia sozial bat:

- A. Jardueren oroit-idazki bat
- B. Famili dossier bat
- C. Egoera jakin baten azalpen-laburpena jasotzen duen agiria
- D. Fitxa soziala sistematizatu eta kuantifikatzen duen tresna-euskarri bat

57.- Hauxe esan nahi du prebentzio positiboak:

- A. Jarrerak eta motibazioak, faktore konpentsatzaile, edukitzaile eta babesleak lantzea
- B. Ekintza arrisku egoeran dauden taldeei zuzentzea, prebalentzia gutxituz
- C. Jarduerak neurri politiko-sozialetan zentratzea
- D. Esku hartze neurriak inplementatzea arazoa ezagutu eta diagnostikatzen delarik

58.- Plangintzaren eraginkortasunak esan nahi du:

- A. Jarritako helburuak eta jomugak lortu direla
- B. Aurreikusitako metodologia jarraitu dela
- C. Kostu eta baliabideen murrizketa, emaitzarik hoberenekin
- D. Baliabide eta helburuen arteko erlazio ezegokia

59.- Kasu eta dauden nahiz kudeatu daitekeen baliabideen koordinazioa, noren zeregina da?

- A. Diziplinen arteko lantalde bat
- B. Babes zibila
- C. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
- D. Udaltzaingoa

60.- Gizarte lana banakoei, taldeei eta komunitateei beren premiak konpontzen laguntzeko modu gisa sortu zen?

- A. Bai
- B. Ez
- C. Banakoen beren potentzialtasunak nabarmendu zituen, eta komunitateak horiek asetzeko dituen baliabideetan
- D. a) eta c) aukerak zuzenak dira

61.- Hauek dira gizarte lanaren zereginak:

- A. Laguntza ematea, ikerketa, plangintza, prebentzioa, zuzentzailea, prestakuntza, gizarte zerbitzuen administrazioa eta programazioa
- B. Makrosozialak eta mikrosozialak
- C. Banakoak, taldekoak, familiakoak eta komunitarioak
- D. Erantzukizuna harraraztea, arazoei erantzutea, autolaguntza, gizarte zerbitzuen kudeaketa, banako laguntzak eta etxeko laguntza

62.- Hauxe dira dokumentazio teknikak:

- A. Egiten den lanetik sortzen den informazioa prozesatzeko modu desberdinak
- B. Egiten den laneko informazioa bildu, berreskuratu eta sakabanatzeko moduak
- C. Datu erregistroak
- D. Aurreko hirurak zuzenak dira

63.- Hauei dagozkienak dira informazio sistematizatuaren berariazko helburuak:

- A. Gizarte arazoen analisisa, programen ebaluazioa eta metodo eta teknika berriak sartzea
- B. Gerentzia-alderdiak, zerbitzuak eskaintzea eta ikerketa
- C. Aurrekontuak egitea, programak garatzea, ebaluazioa, analisi kostuak eta gizarte eta legegintza ekintza
- D. Bideratzea eta jarraipena, zerbitzuaren jarraitasuna, zerbitzuen koordinazioa eta integrazioa eta langileen ebaluazioa

64.- Gizarte lanaren oinarrizko dokumentuak, besteak beste, hauek dira:

- A. Aldikako jardueraren erregistro orria, elkarrizketaren erregistroa, identifikazio fitxa eta fitxa soziala
- B. Txosten soziala, historia soziala, erakunde fitxa, baliabideen fitxategia eta kasuaren jarraipena egiteko dosierra
- C. Kasuaren jarraipenerako erregistro orria, landa-egutegia eta ekintzen oroit-idazkia
- D. Guztiak dira gizarte lanaren oinarrizko dokumentuak

65.- Bere modalitateगतिक, nolakoa izan daiteke elkarrizketa?

- A. Klinikoa, terapeutikoa edo tratamendukoa, psikoanalitikoa, sakona, zentratua edo fokalizatua, erantzun librekoa, erantzun irekikoa edo erantzun itxikoa
- B. Zuzenduak, zuzendu gabea, zuzena, zeharkakoa, hedagarria edo intentsiboa
- C. Orientabidekoa, motibaziokoa, informazio-koa, aholkularitzakoa, klinikoa edo terapeutikoa, jarraipeneko
- D. Informala, librea edo egituratu gabea, egituratua edo estandarizatua eta planifikatua

66.- Hauxe da elkarrizketa:

- A. Bi pertsona edo gehiagoren arteko solasaldi zuzena, helburu batekin
- B. Bi pertsona edo gehiagoren arteko zeharkako solasaldia
- C. Ahozko komunikazioa
- D. Informazio bilketa, helburu jakin batekin

67.- Hauxe da elkarrizketa:

- A. Harreman bat
- B. Teknika bat
- C. Prozesu bat
- D. Guztiak zuzenak dira

68.- Elkarrizketan lortzen den informazioa babesteko eskubidea dute pertsonak. Zer printzipio da hori:

- A. Erreserba
- B. Sekretu profesionala
- C. a) eta b) okerrak dira
- D. a) eta b) zuzenak dira

69.- Erabiltzaile bakoitzari, elkarrizketan, behar duen denbora ematea zer da?

- A. Haren lekuan jartzea
- B. Galdetzen jakitea
- C. Erabiltzailearen erritmoari jarraitzea
- D. Behatzen jakitea

70.- Nola bukatu behar da elkarrizketa?

- A. "Atea zabalik" utziz, hurrengoetarako
- B. Sentipenak moderatuz
- C. Afektuaren intentsitatea murriztuz
- D. Guztiak egia dira

71.- Termino operatiboetan, talde kontzeptuak zeri dagokio?

- A. Talde txiki bat, beren artean kontaktuan dauden pertsonak osatua

- B. Talde txiki bat, elkarri laguntzen dioten pertsonak osatua
- C. Talde txiki bat, ekintza koordinatu batean engaiatuta dauden pertsonak osatua
- D. Guztiak zuzenak dira

72.- Larrialdi plan batek hauxe esan nahi du:

- A. Prebentzioa
- B. Laguntza
- C. Tratamendua
- D. Birgaitzea

73.- Gizarte Larrialdirako Planaren zein etapatan eratzen dira esku-hartzaile diziplinarioren taldeak?

- A. Lehenengo etapa
- B. Berehalako etapa
- C. Bigarren etapa
- D. Hirugarren etapa

74.- Boluntariora programa honetan sartzen da:

- A. Elkarbizitza
- B. Larrialdia
- C. Lankidetzak
- D. Prestakuntza

75.- Oinarrizko behar primarioei berehalakoan erantzutea, larrialdi egoera batean premiazko izaeraz, non gertatzen da?

- A. Berehalako etapa
- B. Lehenengo etapa
- C. Bigarren etapa
- D. Hirugarren etapa

76.- Diziplina arteko taldearen barruan, larrialdi egoera baten aurrean, gizarte langileak ondoen gisako zereginak ditu. Identifika ezazu zen den gizarte langilearen zeregin bat.

- A. Eragindako zonaldeko arazoak atzematea
- B. Esku-hartze espezializatua eskatzen duten arazoak kanalizatzea
- C. Larrialdi egoerak prebenitzea
- D. Kasuak eta baliabideak koordinatzea

77.- Bizilekurik ez dutenen fenomenoak problema-tika honen baitan sartzen da:

- A. Inmigrazioa
- B. Xenofobia
- C. Gizarte bazterketa
- D. Arrazakeria

78.- Etxerik gabeko pertsonak, Europako Kontseiluaren arabera hauek dira:

- A. Bizitoki egoki eta pertsonal bat modu iraunkorrean okupatzetik sozialki baztertuta dauden pertsona edo familiak
- B. Ostaleku pertsonal egokia bere bitarteko propioen bitartez eskuratu eta mantentzeko gai ez dena, edo gizarte zerbitzuen laguntzarekin ostalekua mantentzeko gauza ez direnak
- C. Deserrotze geografikoa jasaten eta leku batetik bestera noraezean dabiltzanak
- D. Bat ere ez da zuzena

79.- Iragailak:

- A. Inongo gizarte taldeko kide sentitzen ez direlako hiri batetik bestera dabiltzan pertsonak dira
- B. Talde primario desintegratuetatik datoz, eta segurtasunik gabeak dira, deserrotuak izaki
- C. a) aukera bakarrik da zuzena
- D. a) eta b) zuzenak dira

80.- Hauxe da taldea:

- A. Gizabanakoen harreman pertsonalak
- B. Helburu jakin batekin elkarri eragiten dieten gizabanakoen multzoa
- C. Gai baten inguruko hizketaldia, gizabanakoek elkartzeko duten premia dela eta
- D. Biltzen diren pertsonen multzoa

81.- Hauek dira diziplina arteko taldeen zereginak:

- A. Banako prestazio ekonomikoak, etxez etxeko laguntza balioanitzak, famili harrera eta gizarte lankidetzak
- B. Informazioa, aholkularitza eta informazioa, gizarte larrialdia, elkarbizitza, gizarte lankidetzak eta esku-hartzea gizarte prebentziorako eta gizarteratzeko
- C. Premiak atzematea, informatzea, gizarte zerbitzu espezializatuak bideratzeko kudeaketa, komunitatean prebentzio zerbitzuak sustatzea, gizarte ekintzaren datuak biltzea, ekintza sozialeko profesionalak eta elkarteak koordinatzea
- D. Informazio bulegoak, zabalkunde-argitalpenak, sentikortze kanpainak

82.- Erabiltzailearen benetako onspena da:

- A. Erabiltzailearen onarpena
- B. Erruduntasuna, errugabetasuna edo erantzukizun-maila zehaztea baztertzea
- C. Erabiltzailea den bezala hauteman eta tratatzea
- D. Erabiltzailearen kualitate bakarrak ezagutu eta ulertzea

83.- Zein dira elkarrizketaren ezaugarriak?

- A. Orientabidea, motibazioa, informazioa, aholkularitza, terapia, tratamendua eta jarraipena
- B. Gizabanakoan eta arazo batean zentratzen dela
- C. Hitzaren bitartez gauzatzen dela, ulerkuntza errazten duela, bitarteko profesional bat dela eta enpatia ahalbidetzen duela
- D. Autodeterminazioa, indibidualizatzea, begirunea, onarpena, juzkurik gabeko jarrera eta sekretua

84.- Bere modalitateetatik, nolako izan daiteke elkarrizketa?

- A. Klinikoa, terapeutikoa edo tratamendukoa, psikoanalitikoa, sakona, zentratua edo fokalizatua, erantzun librekoa, erantzun irekikoa edo erantzun itxikoa
- B. Zuzenduak, zuzendu gabea, zuzena, zeharkakoa, hedagarria edo intentsiboa
- C. Orientabidekoa, motibaziokoa, informazio-koa, aholkularitzakoa, klinikoa edo terapeutikoa, jarraipeneko
- D. Informala, librekoa edo egituratu gabea, egituratua edo estandarizatua eta planifikatua

85.- Zein dira gizarte lanaren oinarriko printzipioak, gizarte langileak elkarrizketan mantentzen duen jarreraren bete behar direnak?

- A. Behatzen jakitea, entzuten jakitea, galdetzen jakitea, pertsonaren erritmoa jarraitzea, haren lekuan jartzea eta egituratzen jakitea
- B. Autodeterminazioa, indibidualizazioa, begirunea, onarpena, erreserba, aurre-juzkurik gabeko jarrera
- C. Arazoak, pertsonak eta horien ingurunea ikustea, galdera irekiak eta gehiegi ez mozte
- D. Isiltasuna, elkarrizketaren giroa eta horren bukaera

86.- Taldeko gizarte langilea, Kisnermanen arabera, hauxe da:

- A. Lider bat
- B. Animatzaile bat
- C. Orientatzaile bat
- D. Kontseilu-emaile bat

87.- Arazo baten tratamenduan diziplina desberdinak integratzea, nola deitzen da?

- A. Taldeko gizarte lana
- B. Lehen laguntza
- C. Diziplina aniztasuna
- D. Diziplina artekotasuna

88.- Hauek dira plangintzaren ezaugarriak:

- A. Arrazionaltasuna, aurreikuspena, unibertsal-tasuna, batasuna, jarraitasun eta inherentzia
- B. Egoera jakina, ekintza aldatzeko interesa, baliabiderik izatea eta ardura duen erakundea
- C. Jarduteko aukera, jarduteko plan bat aukeratu eta hartzea eta plan hori gauzatzea
- D. Tresna bat da, prozesu bat, malgua da, arrazionala eta eraginkorra

89.- Ikerketa gauzatzeko bideratu behar diren fase desberdinak honela deitzen dira:

- A. Uneak
- B. Etapak
- C. Elementuak
- D. Bat ere ez da zuzena

90.- Hauek dira jomugak enuntziatzeko baldintzak:

- A. Bideragarritasuna, egokitasuna eta onargarritasuna
- B. Herritarrak, teknikariak eta erakundea
- C. Argitasuna, errealismoa eta egokitasuna
- D. Zehaztasuna, bitartekaritza, iraupen jakina, koherentzia eta ahalegina

91.- Zein dira diagnostikotik esku-hartze guneak aukeratzeko irizpideak?

- A. Operazio-helburuak, jarduera-mailak, ekin-tzak, teknikak eta baliabideak
- B. Esku-hartzearen premia, izan lezakeen eraginkortasuna, erakundearen izaera eta politika eta gizarte langilearen nortasuna eta prestakuntza
- C. Zerbait egiteko eta emaitzak lortzeko bitartekoak
- D. b) da zuzena

92.- Zein dira plangintzaren oinarrizko printzipioak?

- A. Tresna bat da, prozesu bat, malgua da, arrazionala eta eraginkorra
- B. Egoera jakina, ekintza aldatzeko interesa, baliabiderik izatea eta ardura duen erakundea
- C. Arrazionaltasuna, aurreikuspena, unibertsal-tasuna, batasuna, jarraitasun eta inherentzia
- D. Jarduteko aukera, jarduteko plan bat aukeratu eta hartzea eta plan hori gauzatzea

93.- Honetan sartzen dira esku-hartze nukleoak:

- A. Plana
- B. Proiektua
- C. Programa
- D. Plangintza gizarte lanaren

94.- Hauek dira plangintzaren mailak:

- A. Plana, programa eta proiektua
- B. Makrosoziala eta mikrosoziala

- C. Programazioa
- D. Guztiak zuzenak dira

95.- Irizpen profesionala emateko informazioa jasotzea, zeren helburua da?

- A. Fitxa soziala
- B. Kasu baten jarraipen dosierra
- C. Txosten soziala
- D. Historia soziala

96.- Kontu hauei erantzuten saiatzen da programazioa:

- A. Zer egin nahi den, zergatik egin nahi den, zertarako, zenbat, non, noiz, nola, zeinek eta zerekin
- B. Izaera, jatorria eta funtzionamendua, helburuak, jomugak, kokapena, denboran kokatzea, metodologia, jarduerak, giza baliabideak, baliabide materialak eta finantza-baliabideak
- C. a) eta b) zuzenak dira
- D. a) eta b) okerrak dira

97.- Gizarte zerbitzuetara jotzen duten herritarren profil soziodemografikoa ezagutzea zeren helburu da?

- A. Txosten soziala
- B. Identifikazio fitxa
- C. Kasu baten jarraipena erregistratzeko orria
- D. Fitxa soziala

98.- Plangintzaren helburuek izan behar dute:

- A. Enuntziatua eta zehaztuak
- B. Bideragarriak, egokiak eta onargarriak
- C. Argiak, errealistak eta egokiak
- D. Orokorrak eta berariazkoak

99.- Hauxe da proiektua:

- A. Proiektu koordinatu eta elkarrekin erlazionatuen multzoa
- B. Planaren unitaterik txikien eta oinarrizkoena
- C. Errealitatea eraldatzeko Gizarte Ekintza orokorki aurreikusteko finkatzen diren neurrien multzoa
- D. Gizarte langilearen gertueneko jardura

100.- Jarduera profesionalaren adierazleak, besteak beste, hauek dira:

- A. Informazioa eta orientabidea, laguntza, kontzientziarazioa, aholkua, arazo-egoeraren azterketa eta balorazioa, baliabideak koordinatu eta mobilizatzea, tratamendu soziala
- B. Herritarren profil soziodemografikoa ezagutzea, arazoak atzematea, eskabide motak, baliabideen erabilera
- C. Famili osatera, osasun estaldura, etxebizitza, diru-sarrerak, lanbidea eta okupazioa
- D. Egoera sozio-familiarra, etxebizitzarena, ekonomikoa, kultura eta osasunaren alorrekoa.